

PREMAZKO INTERPELAZIO ZUZENA

TXARA I EGOITZAN EGINDAKO IKUSKAPENAREN ONDOREN HAUTEMANDAKO ZABARKERIEI BURUZKOA

EH Bildu udal taldearen bozeramaile naizen Reyes Carrerek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen didan aukeraren bidez, Txara I egoitzako egoiliarak artatzean hautemandako zabarkeriei buruzko **INTERPELAZIO ZUZEN** hau egiten diot Donostiako alkate Eneko Goiari, osoko bilkuran hari buruzko azalpenak eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur goizean tokiko prentsaren bidez jakin dugu irailaren 17ko ikuskapen txosten batek Donostiako Txara I egoitzak, Biharko Gipuzkoa enpresa pribatuak emakida araubidean kudeatzen duen eraikin publikoak, mediku, erizain, monitore, fisioterapeuta eta psikologo gutxieneko ratioak urratzen dituela. Txosten horretan aipatzen dutenez, halaber, egoiliarrek 14 ordu igaro ditzakete afal orduetatik gosarietara, ezer jan gabe.

Aipatu behar da ikuskapena irailaren 1ean egin zutela, ELA sindikatuak jarritako salaketa baten ondorioz. "Aldez aurretik abisatu gabe" egindako bisita bat izan zen, zerbitzuan itxuraz dauden zenbait akats egiaztatzeko. Ikuskapenarekin batera, COVID-19aren agerraldi txiki bat izan zen, bi langilek positibo eman zutelako. Horren ondorioz, lehen eta hirugarren solairuetako erabiltzaileak berrogeialdian egon ziren. Txara-Ilean, une hartan, 116 erabiltzaile zeuden.

Ez da lehenengo aldia, pandemian, sindikatuak eta senideek zabarkeriak salatzen dituztela eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuskapen gehiago eskatzen dituztela, hura baita mendekotasun egoeran dauden pertsonen arteko zentron kudeaketaren zuzeneko arduraduna.

Alkateak eta udal Gobernuak ez diete inoiz ezer jakinarazi taldeei Txara I egoitzako egoerari buruz.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen dudan zinegotzi honek honako INTERPELAZIO hau egiten dut

- Zer dela eta ez du alkateak ezer jakinarazi Txara I egoitzaren egoerari buruz? Ez zegoen jakitun? Jakinaren gainean bazegoen, zergatik ez die udal taldeei adierazi?
- Jarri al da harremanetan alkatea Txara Ieko zuzendaritzarekin eta Foru Aldundiarekin? Zer adierazi diote? Ez badu egin, eta benetan egoera kezkagarria izanik, zergatik ez du egin?
- Zer dela eta ez du alkateak eskatzen aldizkako ikuskapenak egitea Donostiako adinekoak artatzeko egoitza guztietan?

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

- Zer dela eta uzten dute Txara Ien antzeko zentroetan langileen ratioak ez betetzen?
- Zein neurri hartuko ditu udal Gobernuak horrelakorik berriro gertatu ez dadin?
- Alkateak zer uste du horrelako egoerak Donostiako zentro gerontologikoetan gertatzeaz?

Donostian, 2021eko irailaren 29an

Reyes Carrere,
EH Bildu udal taldearen bozeramailea.